

han-hemen

Genoako artzapezpikuak lur azpian eman du meza


Genoako artzapezpikuak, Dionigi Tettamanzik, lur azpian eman zuen meza herenegun, Santa Barbara egunean. Besteak beste, suhiltzaileen eta meatzarien santutzat daukate sinisdunek Santa Barbara. Horregatik, lur azpian, metroko geltokian, eman zuen meza Tettamanzik, «meza leku berezi batean eman nahi nuelako». Artzapezpikuaren arabera, «metroak balio handia dauka gizartean, komunikazio bide moduan oso garrantzitsua da».

Aerolito bat erori da Castellon, eta metro bateko zuloa ireki du

Valentziako Emergentzia Zentroak jakinarazi duenez, egunotan aerolito bat erori da Castellon, eta metro bat diametro den zuloa ireki du. Aerolitoak metro bateko altuera dauka, eta metro bateko zabalera. Aerolitoak erradiaziorik botatzen duenez ez dakite oraindik. Horregatik, objektua aztertzen dihardute. Castello inguruko bizilagun batzuek jakinarazi dutenez, ostiral iluntzean «objektu argidun bat zerutik lurrera erortzen» ikusi zuten. Meteoritoetan aditu Jose Maria Trigok esan du objektua meteorito bat izan daitekeela.

Gusmaok berak ateratako argazkiak erakutsiko ditu

Xanana Gusmaok, Ekialdeko Timorreko lider politikoak, argazkiak ateratzea oso gustuko du. Hala, Lisboa inguruko herrixka




Putinen hamabi keinuak

Moskuko Dmitry Vrublek artistak Errusiako presidentea Vladimir Putinen 12 marrazkirekin osatutako 2002ko egutegia egin du, 'Presidentearen 12 keinuak' izenekoa. Azalean hamairugarren marrazki bat sartu du. Argazkikoa azarokoa da.



Santa Claus Harley Davidson batean

Harley Davidson motoen gainean eta Santa Clausen jantziak jantzita, hainbat motozalek bilkura egin zuten atzo Suitzako Zurich hirian. Denera 50 lagun inguru bildu ziren, denak mozo-rotuta, eta hiri osoa igaro zuten.



Euritakoa hartuta, izotz gainean irristatzen

Argazkiko lagunak, egundoko euriteak eginagatik, izotzetan irristatzeko denborarik ez zuen galdu atzo; hori bai, euritakoa hartuta. Argazkia Edinburghen ateratakoa da, Eskoziako.

batean berak ateratako 80 argazki paratuko dituzte erakusketa batean. «Timortar denei argazkiak ateratzeko denbora edukitzea gustatuko litzaidake», esan du Gusmao berak.

Bandera japoniarra 'jantzi' zuen aktore txinatarraren afera


Zhao Wei aktore eta abeslari famatuak nahikoa iskanbila eragin du; izan ere, *Fashion magazine* izeneko moda aldizkarian Japoniako bandera militarra jantzita agertu da. Zhao Weik dioenez, «argazkiaren atzean ez zegoen arrazoi politikorik edo milita-

rik». Dena dela, jantzia ikusi zuenean harritu egin zela onartu du: «Beharbada diseinatzaileek ez dute gure historia ezagutzen». 1931tik 1945ra bitartean gerran aritu ziren Txina eta Japonia; eta, orduz gero ere, bi estatuen arte harremanak ez dira batere onak izan. «Nire aitona-amonak iraultzaileak izan ziren, Txinarekin borroka egin zuten japoniarren kontra, eta haietaz oso harro nago», dio Weik. Hainbat eta hainbat txinatar Zhao Weiri boikota egiteko eskatzen ari dira, batik bat Internet bidezko mezu bitartez. Horren inguruan ez du hitz egin aktore txinatarrak.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222